

# ELGERA



**KOLDO OLABARRI**

“Mundu zail honetako ate batzuk ireki ditut”





- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Normalkuntza taldeak
- 8 Jarduerak
- 10 Aholkuak gurasoei
- 11 Liburuen iruzkinak
- 12 Musika taldeen iritziak
- 13 Teknologia berrien berriak
- 14 Zine - antzerki kritikak
- 15 Btxikeriak
- 16 Agenda
- 17 Denboapasak



# aurkibidea

ELGERA<sup>A</sup> 1 zbk. . abendua 2012

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



## ELGERAko lantaldea

Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta baita B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa ere. Argazkian Karmele eta Inma falta dira.



# Berbagunea



***2012ko irailaren 25ean antolatu zen lehendabiziko Berbagunea, Bilboko Alondegian, eta Botikazar institutuko ikasleak, beste hainbat eskolatako ikasleekin batera, goiz osoan euskaraz solasaldian aritzeko aukera izan genuen. Hasteko ordua heldu zenean, lekua hartu, Julian lantziren eskutik azalpenak entzun, eta segituan ekin genion berriketari.***

**Maialen Ezkurra**

Nire ikuspuntutik abiatuta esan dezaket zorte ona izan nuela, hiru solasaldietan eroso sentitu nintzelako, bai beste hiztunekin bai emandako gaiekin. Baina, bestalde, konturatu nintzen zenbait mahaitan kontrako egoera eman zela, agian jendearen lotsagatik edo euskara maila baxuagatik. Benetan penagarria iruditzen zait jendea euskaraz mintzatzera ez ausartzea, gure kultura eta hizkuntza bereganatzeko eta sustatzeko dagoen modu bakarra hauxe erabiltzea baita, lantzik berak esan zuen moduan ekitaldia aurkeztean.

**Leire Cristobal**

300 gazte batzea euskaraz solas dezaten ideia ona da teorian, baina praktikan emaitza triste xamarra izan zen. (...) Halako jarduerak egitea denbora-galtze bat dela uste dutenak gehiago ziren, eta ondorioz, Alondegiak ez zuen euskaraz hitz egin, xurxulatu baino ez zuen egin.

**Nerea Vallejo**

Nire aburuz, Berbaguneak adin bereko gazteak gure inguruaz dargiguna eta horri deritzoguna komu-

nean jartzeko aukera aparta ematen du.

**Pablo Azcoitia**

Bigarren mahaiko gaia etorkizunari buruzkoa izan zen eta adin ezberdineko pertsona batzuk batu ginenez bakoitzaren kezka ezberdinak ikusteko aukera izan genuen. Hirugarren eta azken gaia euskara kalean izan zen eta bertan entzundakoarekin harrিতuta geratu nintzen. Moderatzaileak eskolatik kanpo euskara entzuten genuen galdetu zigunean nuk baino ez nuen baietz erantzun.

**Maitte Cortes**

Egokitu zitzaidan lehenengo mahaiari, gogotsu geunden taldekide denak, eta aurrean genituen gaiei jaramon gehiegirik egin gabe, gure gora-beheren gainean aritu ginen. 20 minutuak azkar batean igaro zitzaizkigun. Bigarren txandan, ordea, egoera guztiz bestelakoa izan nuen aurrean, mahaikide denak ginen bertakoak, ez zegoen atzerritarrik, baina hiru baino ez ginen hizketaldian aritu. Beste hiruen ustetan, euskaraz aritzeak ez zuen ezertarako ere balio, eta lelokeria eta denbora-galtze hutsa baino ez zen jarduera hura beraiantzat.

**Maialen Ezkurra**

Jarduerarako proposatzen ditudan hobekuntzak hauek dira: gai berriak erabiltzea, iritzi berriak entzun eta ekoiztearren, bai entzuleen bai hiztunaren onerako eta, beharbada, moderatzaileei dagokionez, kontu gehiagoz aukeratzea.

**Ane Mendoza**



# “Mundu zail honetako ate batzuk ireki ditut”

Deustuko Ikastolako ikasle ohia dugu Koldo Olabarri. Azken aldi honetan, Euskal Telebistako ‘Bi eta Bat’, umorezko teleailean aktore lanetan dabil. Irakasleek diotenez, zaletasun argia nabarmentzen zitzaion txikitatik.





### **Nolatan hasi zinen antzerki lanetan? Zenbat urterekin?**

Betidanik gustatu izan zait abestea, dantzatzea, pertsonaia desberdinak asmatzea. Txikia nintzenean lehengusinarekin antzezlanak egiten nituen familiaren aurrean, baita magia trukuak ere. Horiek nire lehenengo pausoak izan zirela esan daiteke. Bederatzi urte nituela antzerki eskolara joan behar nuela sentitu nuen eta hor hasi zen istorioa.

### **Zergatik duzu hain gustuko antzerkia? Zer transmititzen dizu?**

Aurreko galderan erantzundakoagatik batez ere, eta libre sentiarazten nauelako. Hitzekin azaltzeko nahiko zaila da.

### **Ikastola utzitakoan nola eta non jarraitu zenuen?**

La Fundici n aretoan eman nituen nire lehenengo klaseak, sei bat urte eman nituen. Zer edo zer gehiago behar nuen eta Santutxun orain hiru urte zabaldu duten antzerki-zinema eskolara joan nintzen. 17 urte nituela, AEBtara joan nintzen Batxilergoa bukatzera eta han antzerki musikala deskubritu nuen. Zoramena niretzat, zeharo maitemindu ninduen. Bilbora bueltatu eta lau leku ezberdinetan egon nintzen antzeztan, antzerkian, musikalean, kabaretean eta telebistan. Kristoren urtea niretzat, imajina dezakezunez. Orain Madrileko antzerki eskola batean nago, ikasten jarraitu behar delako uneoro, ofizio honetan lan egin ahal izateko.

### **Nola sortu zen Kipulak taldea? Azaldu apur bat gaineratik nolako lanak egiten dituzuen bertan.**

Joan den urtean hasi nintzen Kipulak Antzerki Taldean. Urteak zeramatzen kabaret desberdinak prestatzen eta oholzetan aurkezten. Azkenengo lana, zeinetan parte hartzeko aukera izan nuen, Toxic Cabaret izan da. Arrakasta handikoa. Beharbada etorkizun hurbil batean aldaketa txiki batzuekin berriz ere antzezteko aukera izango dugu.



### **Zure taldekideek ez bezala, zuk telebistara egin duzu salto. Zer nolako aldaketa izan da zuretzat, ikastolan hasitakoa bat-batean EITBko telesail baten parte izatea?**

Telebista egiten nuen lehen aldian izan da, pertsonaia garrantzitsu batzuekin. Aldaketa nabaria izan da, ez delako antzerkia bezala lantzen. Prozesua askoz arinagoa da, estudio batean grabatzen da dena eta teknikoz inguraturuta uneoro, zeinak ez dira telebistatik ikusten. Aldaketa handiena batez ere kaleko jendearentzat izan dela uste dut. Badirudi, telebistan lan egiteak garrantzia handiagoa duela antzerkian egiteak baino, seriotasun gehiago ematen zaio ofizio honi telebistaren bidez.

### **Zer nolako esperientzia da holako grabaketan parte hartzea?**

Esperientzia mundiala izan da. Euskal Herriko aktore handienekin lan egitea. Mundu zail honetako ate batzuk ireki ditut, izugarri ikasi eta ume baten antzera gozatu dut azken unera arte. Plazer handia izan da Bi eta Bat bezalako telesail on batean parte hartzea, baita ezagutu izan dudan jendearekin lan egitea ere.

### **Aktore moduan, egin dituzun lanetatik, zein gustatu zaizu gehien? Zergatik?**

Ezin batekin geratu. Denek zer edo zer ematen didate, gehiago edo gutxiago, baina denak dira gogokoak.

### **Antzerkia gustuko duen eta hasi berria den gazte bati zer aholku emango zenioke?**

Prestatzea, oso garrantzitsua, munduko gogo guztiak jartzea, topera disfrutatzea eta hori bada zure bizitzarako nahi duzuna, bukaera arte borrokatzea, nahiz eta bide erraza ez izan.




**XINYON - IKASLEA**

Jende asko langabe dago, kendu dizkigute bekak, supermerkatuan prezioak igo dira, dena dago garesti. Borrokatzen ari gara, grebak egiten murrizketen kontra. Dena Rajoyren errua izan da.

**GEORGE - IKASLEA**

Geletan ikasle gehiago eta irakasle gutxiago dago eta bekak gutxitu egin dira. Lana topatzea zaila da. Etorkinak euren herrietara itzultzen ari dira. Aurreztu egiten dugu janaria, aisialdia, kapritxoak eta abar.

**KOLDO - IRAKASLEA**

Nik ez dut nabaritu, baina nire inguruan bai. Lagunak langabezian daude eta gaizki pasatzen. Nire lanean soldata jaitsi didate eta BEZa igo dute.

**CRISTINA - IRAKASLEA**


Seme-alaben etorkizunaren beldur naiz, krisi hau gerra ekonomikoa da. Ikasleek arduratzen naute, orain nor joango da unibertsitatera? Aberatsak bakarrik?

**ENDIKA - MERKATARIA**

Milioika pertsonak galdu dute bere lana eta etxea ere bai. Erosi ditugu gauza batzuk, ez dutenak ezertarako balio eta ez ditugu erabili. Orain krisi morala daukagu.

**ANTONIO - TABERNARIA**

Jendea gutxiago irteten da eta gutxiago kontsumitzen du. Beraz, nik gutxiago irabazten dut.



# Salesianos Deustoko ikasleen batzordea



**Kaixo lagunok!  
Gu batzordeko  
neska-mutilak gara eta  
zertan datzan azalduko  
dizuegu fitxa-tekniko  
baten bidez.**

*El Euskara Taldea est formado por un grupo de alumn@s que intentan dar un empuje a la utilizaci n del euskara en nuestro centro. Forman parte dos alumn@s de cada clase elegid@s por sus compa er@s. nicamente se les pide la asistencia a las reuniones (quincenalmente) y la participando en las actividades que se propongan.*

**IZENA:** Euskara Taldea (ET)

**MASKOTA:** Mintxu

**LELOA:** Euskara gure aukera

**PARTAIDEAK:** Lehen Hezkuntzako klase bakoitzeko ikasle bi (Ordezkarria eta Laguntzailea)

**AUKERAKETA:** Ikaskideek aukeratzen gaituzte urtero.

**TALDEAN SARTZEKO BALDINTZAK:**

Euskaraz ondo eta askotan hitz egitea.

Ikaskideen onarpena eta gurasoen baimena izatea, eta konpromisoa sinatzea.

**BILERAK:** Hamabostero astearreetan 12:30etatik 13:00etara.

**JASOTAKO MATERIALA:** ETko karneta, bileren ordutegia eta agenda.

**BETEBEHARRAK:** Bileretara joan eta ikaskideei informazioa zabaltea.

**GURE HELBURUA:** Gure zentroan euskararen erabilera bultzatzea.

**AURTENGO KONPROMISOA:** Konekta zaitez euskararekin.

**IKASTURTEKO EKINTZAK:**

- Ikastetxean dauden proiektuen aurkezpen egunean Batuka tailerra antolatu.
- Euskararen Nazioarteko Eguneko eta beste ospakizunetarako ekintzak antolatu.
- Lehiaketak prestatu.
- Motibazio ekintzak bultzatu.
- Gela bakoitzeko kortxoaren antolaketaz eta informazioa jartzeaz arduratu.

**Hauexek dira ikasturtez ikasturte betetzen ditugunak. Gauza batzuk urtero mantentzen ditugu baina beste batzuk, berriz, aldatzen ditugu... emozio gehiago sortarazteko!**



Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu genuen gure ikastetxeetan hamaika ekitaldi antolatuz.



Euskararen E hizkia jendez bete dute San Inazio BH2koek



Ibarrekolanda institutuko ikasleak Bilboko kontserbatorioan olatua egiten





Euskararen Eguna Salesianos Deuston



Eskurtzeko jolastokian ikasleak ekitaldia prestatzen



# Eleanitzak gara, baina non erabil dezakegu euskara?


Konturatu zarete eleanitzak zaretela? Euskara, gaztelania eta ingelesa dakizkizue, baita zue-tako askok beste hizkuntzaren bat ere. Hori normala da zuentzat baina horrela al zen orain urte batzuk? Begiratu zuen inguruan: gurasoak, aitite-amamak Kasu askotan hizkuntza bakarra ikasi zuten. Beraientzako hori oso normala izan da.



Gaur egun normalena hizkuntza bat baino gehiago jakitea da. Normala eta aberatsa. Zorte handia daukagu. Zenbat aldiz entzun duzue: Nik ez nuen euskara ikasteko aukerarik izan! Zer jartzen du hor? Zer esaten du abesti honen?

Hori bai, hizkuntzak ikasten ditugu baina erabili Askok euskara gutxi entzuten duzue institututik kanpo. Irakasleekin egiten duzue baina handik aurrera oso gutxi. Ez al litzazueke gustatuko euskaraz ere egin ahal izatea? Euskara erabiliz gustura eta eroso sentitzea? Zuen inguruan euskara dakien eta euskara normal erabiltzen duen jende asko bizi da. Konturatu al zarete horretaz?

Proposamen bat egiten dizuet: aste batean zehar saiatu elkarrizketa batzuk euskaraz sortzen (kiroldegian, gizarte etxeetan, dendetan). Baietz sorpresak eraman eta uste baino jende gehiagorekin euskaraz egiteko aukera izan. Animatu eta egin frogala!



## Queremos que aprendan más de una lengua pero...

*Hasta hace no muchos años era muy normal saber una sola lengua. Pero eso ha cambiado en pocos años y hoy en día nuestros hijos e hijas están aprendiendo tres o más lenguas.*

*Sin ninguna duda eso es positivo desde muchos puntos de vista pero también nos crea dudas a padres y madres: no tendrán más dificultades? ¿les podremos ayudar en las tareas escolares? Etc.*

*En estos artículos intentaremos responder a algunas dudas, pero también las podrás consultar en [www.emangiltza.com](http://www.emangiltza.com).*

*Sin ninguna duda aprender más de una lengua tiene muchas ventajas, pero como padres y madres podemos ayudar a que la relación con esas lenguas sea positiva. En nuestro entorno el castellano es mayoritario: tendrán muchas vivencias y muchos referentes en esa lengua. Y en euskera? Actividades extraescolares, música, televisión, lectura Si cuidamos la relación que tienen con las lenguas les ayudamos a que vivan el bilingüismo y el plurilingüismo como algo positivo y enriquecedor.*

## Kixmi elurpean

**Idazlea:** Arrate Egara Gimenez

**Argitaletxea:** Elkar, 2005

**Bilduma:** Taupada

**Orrialde kopurua:** 200

### Bai irakurri!

Istoriokilikagarria, sexua, drogak eta gazteak protagonistak direlako, AMAIA; Gustuko izan dut, protagonistek argi zeukaten abortatu behar zutela, eta azken momentuan, hainbat erokeria egin ondoren, atzera egiten dute, VANESSA; Hoberena? Beraien harreman sexualak hilerrian eta egiten zituzten manifestazioak!, LIBE; Beste liburu batzuetan aurkitu ez dudana gaia jorratzen du, hori dela eta interesgarria irudituz zait, ANE; Liburu honen alde positiboa, gazte independentistek eskubideen alde borrokatzen zutela... , AITOR; Gustuko dut, nobela errealista da, GUILLERMO; Azken sentsazioa ona, YERAY; Gertakizunak nahiko sakonak dira eta momentu askotan egoera larri edo intimitatean sartuta daude, ASIER.



### Ez irakurri!

Irakurketa amaitu nuenean, lasaitu ederra sentituz nuen, ez dut atsegin, LEIRE; Liburu hau ez zait asko gustatu, pertsonaia gehienak antzekoak zirela zirudielako, JUNCAL; Hainbeste denbora ezere ez esateko, ANA; Gaiak ez nau bete, ez zait originala irudituz. Gainera istorioa 90eko hamarkadan gertatzeak oso hotz egiten du, nire garaia askoz ezberdinagoa baita. Horrek ez du errazten istorioan sartzea eta pertsonaiekin konektatzea, IRENE; Amodiozko ipuin hauek ez ditut batere gustuko, ASIER; Ez dut gogoko nobela hau ez naizelako identifikatu pertsonaiekin, ENEKO.





## KEN ZAZPI

## Kontzertu eta salmenta gehien

Azken urteetan Euskal Herrian kontzertu gehien eskaintzen eta disko gehien saltzen duen taldeetako bat da Ken Zazpi taldea. 1996. urteko udazkenean jaio zen Gernikan. Rocka eta power-popa lantzen dituzte, eta testuetan taldeak inguruarekiko duen konpromiso handia erakusten du, eguneroko kezkak, egoerak eta sentimenduak deskribatuta. 2001ean iritsi zen taldearen lehen diskoa Atzo da bihar izenburupean. 2003ko apirilean Bidean izeneko bigarren lana kaleratu zuten eta 2005ko maiatzean, berriz, Gelditu denbora izeneko CD berezia iritsi zitzaigun.

Andoaingo Garate estudioetan grabatutako kontzertu akustiko baten emaitza biltzen du lan honek. Zuzenean grabatuta daude kantutak, taldearen zenbait kantu zahar eta hainbat abesti berri tartekatuta.

Gure ustez Ken Zazpi oso talde interesgarria da, erritmo hain bizia ez izan arren letra oso politak ditu. Abestietan esaten dutena oso erromantikoa da, adibidez, guri asko gustatzen zaigu Ilargia abestia.

[www.myspace.com/kenzazpi](http://www.myspace.com/kenzazpi)



[www.esnebelta.info](http://www.esnebelta.info)

## ESNE BELTZA

## Talde handia, martxa handia

Esne Beltza, taldea Euskal Herrian jaio zen; Xabi Solanoren ideia izan zen, eta berak du Esne Beltza taldea sortzearen ohorea.

2008an atera zuten lehenengo diskoa Made In Euskal Herria izenekoa. Diskoak 15 abesti ditu.

2009an atera zuten CD+DVD bat Esne Zopak izenekoa. Disko hori trikitiaren munduari eskainia zegoen eta estilo horretako abestiz osatua dago.

2010ean bigarren diskoa atera zuten, Noa izenekoa. Diskoak 17 abesti ditu.

# Ez da baterre zaila

Bittor Alaña



WhatsApp aplikazioa, berriz, euskaratze prozesu bidean dago. Eta ZUK ZEUK lagundu dezakezu <http://translate.whatsapp.com> orrialdean sartuz eta bertan zure ekarpena eginez.

Kontuan hartu beti euskara eta teknologiak bateragarriak direla, eta ahotan edukitzeaz gain, orain mugikor eta ordenagailuetan erabiltzeko aukera dugula!

Azkenik, zuontzako eskaera bat daukat: sartu <http://www.eusko-ikaskuntza.org/ene> orrialdean eta izena eman Google-k Euskararen Eguna aipatzeko *doodle*-an. Baina beti gogoratu euskarazko teknologiak erabiltzea baino garrantzitsuagoa dela euskaraz mintzatzea edo, kasu honetan, klikatzea!

Askok dakigu euskaraz. Nahikotxok baita hitz egiten dugu. Baina, hizkuntzaren biziraupena ziurtatzeko, euskara eremu guztietan agertzea komeni da. Euskararen erabilera eguneroko bizitzan agertu behar da.

Gaur egun, badago esparru bat gure eguneroko bizitzan garrantzia gero eta handiagoa hartzen ari dena, hau da, teknologia. Egutero *Twitter*-en, *Tuenti*-n, *Whatsapp*-ean etabarretan aritzen gara.

Ez ote da komenigarria euskaraz erabiltzea gure hizkuntza aurrera joan dadin? Nik halaxe dela uste dut, behintzat, eta hori betetzea ez da baterre zaila.

Aipatutako hiru baliabide hauetatik bi, *Twitter* eta *Tuenti*, euskaraz erabil daitezke, beraz, animatu erabiltzen.





Sandra Cardenas

Urriaren 18an joan ginen Patxo Telleriak zuzendutako Soinujolearen semea antzerki lana ikustera. Obra hau Bernardo Atxagak idatzitako nobelan oinarrituta dago, eta Amancay Gazta agak, Joseba Apaolazak eta beste hainbat aktore euskaldunek jarduten dabe lan honetan. Nabarmentzekoa da antzezlanaren lagundu zuen musikaren kalitatea eta eszenatokiaren muntaia.

Antzerkiak David eta Josebaren historia kontatzen deusku. Txikitako lagunak ziren arren,



Garazi Tomas

Interesa piztea lortu zuen, denok hurbi-letik bizi izan dugun sufrimendua kontatzen baitu. Gerrak eta diktadurak Euskal Herrian utzitako zauri ireki askotako bat kontatzen digu, Daviden historia hain zuzen. Euskal Herriaren aldeko borroka, euskararen erabilerraren debekua, salaketa, erbestea, etxemina... honelakoak ageri dira Soinujolearen semea antzezlanean. Nire gustuko obra izan da hau, merezi du.



apurka urrundu egin zirela, kontaktua galdu arte. Urteak igaro, eta David bere aita gerra zibillean nazionalen alde jokatu zuela ohartzen da. Josebagaz berriz aurkitu eta frankistei aurre egiteko ETAn sartzea erabakitzen dabe; arazoak direla eta Frantziara erbesteratzen dira baina bertan kartzelaratu egiten dituzte. Azkenean Davidek taldea uzten dau eta zerotik hasteko Ameriketara joaten da. 30 urte pasatzen dira eta David hilzorioan dago ospitalean; orduan ezustezko bisita bat izaten du: Josebarena, aintzinako kontuak argitzera joan jakola.



Goizez euskaraz eta ARRATZALDEZ ingelesa?

Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi besteen hanka-sartzeekin?

DEBEKU DA horrela idaztea!



NAIZU EZ, NAZAZU

Jaisteko ez da derrigoz JAUSI behar!



Aparkaleku UTZA ala HUTSA?




Medias, euskaraz, ERDIBANAK?


Banesto bankuaren euskara ez dago ulertzerik!





SERBITZU ala ZERBITZUA?



P hizkiaren aurretik M jartzen al da euskaraz?





## Kultur ekitaldiak

**Ruper Ordorikaren kantaldia** 2012.12.22.  
Kafe Antzokia ñ 22.00

**Adina:** 18 urte baino gazteagoak ezingo dira kontzertu honetara sartu.

**Sarrera:** 12 [www.kafeantzokia.com](http://www.kafeantzokia.com)



### Olentzero jaia

2012.12.23. ñ Kafe Antzokia ñ 17.00

**Olentzeroren Sekretua antzezlan.** Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Antzerki Taldea + Haur Berbena.

**Sarrera:** 5 [www.kafeantzokia.com](http://www.kafeantzokia.com)

### Urtxintxa zuhurra

2012.12.28tik 30era ñ Arriaga Antzokia Ordu-tegi zabala

Opera honek urtxintxa bihurri baten istorioa kontatzen du: istripuz hortzik gabe geratu ostean, erregearen sukaldari lana egin beharko du, erregeak ordainsari gisa agindu dizkion hortz berriak lortzeko. Baina Erregeak eta bere gonbidatuek luze egon beharko dute urtxintxa prestatzeko prest ez dagoen otoruntzaren zain.

**Hurrek:** 9 ñ **Helduek:** 13 .  
[www.teatroarriaga.com](http://www.teatroarriaga.com)

### Gabonetako ipuina

2013.01.3tik 5era ñ Arriaga Antzokia Ordu-tegi zabala

Dickensen ipuin ospetsuan oinarrituta dago. Mr. Scrooge zekenaren istorioa kontatzen du.

**Adina:** 4 urtetik aurrerakoentzat.

**Hurrek:** 11 ñ **Helduek:** 16 .

[www.teatroarriaga.com](http://www.teatroarriaga.com)

### Mikel Urdangarinen kantaldia

2013.01.06. ñ Arriaga Antzokia ñ 19.00

Azula disko berriaren aurkezpena.

**Sarrera:** 8,50 -16 [www.teatroarriaga.com](http://www.teatroarriaga.com)



### Aintzina taldea

2013.01.22. ñ Arriaga Antzokia ñ 20.00

Aintzina euskal musika tradizionalaren esparruan sortu da, helburu argi batekin: bitxi ezezagun batzuk, antzinako abesti narraitiboak ezagutzera ematea eta aldi berean herri-eritmoetan eta eskaletan oinarritutako instrumental berriak gehitzea .

**Sarrera:** 8 -12 [www.teatroarriaga.com](http://www.teatroarriaga.com)







# Miribilla, auzo berria

*San Adrian alboan, 2000. urte-tik gaur arte eraikitzen ari den auzo berria da Miribilla. Eraikin guztiak bukatuta daude gutxi batzuk izan ezik. 1997an hasi zen plangintza egiten Ibaiondo barrutian.*

Egin baino lehen, gaur Miribilla den eremu hori sasiak eta meategiak ziren.

## Eraikin enblematikoak

Bilbao Arena: Miribillan eraiki den Bilboko kirolen jauregia da. Hor Gescrap Bizkaia Bilboko saskibaloitza da.

Suhiltzaileen eta Udaltzaingoaren eraikina: eraikin honetara Bilbo osoko segurtasun zerbitzuak ekarri dituzte. Lehen Basurtun zeudena, orain Miribillan daude.

RENFE-ADIF geltokia: RENFE-ADIF geltokiari esker, Abandora bi minututan iritsi ahal zara eta Urdu ara lehen baino lehenago. Lur azpian 48.5 metro dauzka behera, Estatu osoko geltokirik sakonena bihurturik. 13.400.000 kostatu zen obra hau egitea. Ría 2000 proiektuan sartuta zegoen.

Bizkaia frontoia: Bizkaiko frontoirik handiena da, eta hor eskupilota finalak jokatzeko dira, besteak beste.

Maria Josefa eliza: Bilbon dagoen elizarik modernoena da. Azken 18 urtetan egin den bakarra.

## Datu interesgarriak

Miribilla ez da auzo bat, auzoen luzapena baizik. Bere kale garran-



tzitsuenak Askatasuna etorbidea eta Gernikako lorategiak dira eta azken hau Bilboko kalerik zabalena da.

Haurtxo eta ume txiki gehien dituen Estatuko auzoa da eta horako ume asko Miribillatik oso urrun dauden eskoletara joaten dira. Ondorioz Pagasarribide eta Iruarteta handitzen ari dira Miribillatik gertu daudelako eta berton ume horientzako leku nahikorik ez dagoelako.

## Miribilla umeen ikuspuntutik

Telepizza: Miribillako janari bizkorren puntu nagusia da Telepizza, ume guztiak beraien urtebetetzeak hor ospatzen dituztelako. Miribillako kedadak egiteko puntu nagusia ere bada.

Miribilla eraikina: *El Eroski de Miribilla* bezala ezagutua, eraikin handia da negozio ugariarekin. Horien artean D ner Kebab, Moviestar denda, If, Loterias del Estado eta Eroski supermerkatua daude.

Txinatarra: Lehen El Corte Chino deitzen zen eta orain Hiperchina.

Miribillako txutxeria dendak: hiru daude; Argitxu, Puntu eta Koma eta Gozoak-Prensak.

## Abantailak eta desabantailak

Oso ondo komunikatuta dago garrario mota ia guztiak baitaude.

Denetariko negozioak daude, baina nahiko sakabanatuta, beraien artean.

Bilbao Arenak argitasun asko eman dio Miribillari eta Gorteen kalearen alboan egon arren, nahiko babestuta dago.

Goiko Miribillako jendeak ez du nahi Claudio Gallastegi kalea Miribillakoa izatea Bilbao Arena izan ezik, bere asmoa lortu ez arren.

## Eraikinen diseinua

Miribillako jendea nahiko diruduna da eta auzo honetako eraikin gehienak duplexak dira. Gehien eraikitzen den materiala adreilu gorria edo larrosa da. Hau guzti hau kontuan hartuta, azken urte hauetan Miribilla jende guztia bizitzeko gune on bihurtu da.







# Taloa egiten institutuko sukaldean

Azaroaren 9an San Martin eguna ospatu genuen Eskurtze institutuan. Egun polita izan zen eta oso ondo pasatu genuen sukaldean irinarekin jolasten. Gure ikaskide batzuk, irinaren ondorioz, mamu antzarekin amaitu zuten. Ez da horrela Itzal?

Usainaren poderioz, ikaskide eta irakasle ugari hurbildu ziren. Gehienek dastatzeko aukera izan zuten, irakasle batek izan ezik, klase aspergariak emateagaitik, ja, ja, ja!!!

Talo mota ezberdinak egiten ikasi genuen, hala nola; txorizodunak (sagardo erara), odolostedunak, txistorraduna, beganoak (animalien haragi bakoak) etab.

Azkenik, lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu zuzendaritzari proposatzeko, datorren urteko San Martin egunean taloen ostean triki-poteoa antolatuta dezala.

Bide batez, Santo Tomas egunean Bilboko Zazpikaletara hurbildu nahi genuke, euskal giroan murgiltzera.

Agur bero bat!  
Gora San Martin!  
Gora San Tomas!

Menpekotasun Egoeran Dauden  
Pertsonetikiko Arreta Moduloa





# NAGUSI azokan bisitan

Menpekotasun Egoeran Dauden Pertsonetikiko Arreta Moduloko ikasleok etorkizunean adineko pertsonekin lan egingo dugu, horregatik oso interesgarria izan zen lehen mailako ikasleontzat BECeKO NAGUSI azokara urriaren 19an egin genuen irteera.

Eskurtzeko Lanbide Heziketako gazteok oso ondo pasatu genuen Barakaldon. Gainera, gauza berri eta interesgarri ugari ikasi eta ikusi

genituen. Besteak beste, nagusien abesbatzak, nagusien aisialdirako jolasak, elkarteen postuak, produktu naturalen salmenta, teknologia tresnak

Krisi ekonomikoa dela eta, aurreko urteetan baino zerbitzu eta produktu gutxiago erakutsi dira aurten NAGUSI azokan. Dena dela, guk asko gozatu genuen adinekoen sektoreko berrikuntza guztiak bertatik bertara ezagutzuz.





# Elkarrizketa Ander Perezi

*Gaur, Ander Perezekin elkartu gara elkarrizketa bat egiteko. Saskibaloia Iboko Miguel de Unamuno BHI In Batxilergoko 1. maila ikasten ari da. 16 urtez azpiko Espainako Selekzioan jokatzeko du.*



## Zenbat urte daramazu saskibaloian?

Txikitatik oso zalea izan naiz, aitaren eraginez. Eskolako saskibaloia taldean hasi nintzen eta Unamunon jarraitu dut. Dakizuenez, Unamuno saskibaloia eskola orain 11 bat urte sortu zen, eta gaur egun 20 talde ditu, bi Espainia mailan eta beste bi Euskal Ligan. Hazi eta hazi ari den eskola da.

## Zenbat orduz entzenatzen duzu?

Atzo, adibidez, hiru saio egin nituen. Zazpitan hasi nintzen eta hamarretan amaitu; eta beno, segun eta norekin gauza desberdinak egiten dituzu: gimnasia, baloiarekin, teknikak

## Zein taldetan gustatuko litzaizuke jokatzeko?

Nire ametsa Bilbao Basketen jokatzeko da edo beste talde profesional batean, baina hori oso urrun dago. Behin, eskaini zidaten, baina kontratua ez zen ona. Bost urtetarako proposamena zen, soldatarik gabe; eta beste ate guztiak ixten zizkidan. Alde on bakarra Bilbon gelditzea zen.

## Saskibaloiarekin eta ikasketekin ondo moldatzen al zara?

Orain, lehen baino zailagoa da, baina denbora nahiko ondo antolatzen dut. Nire gurasoek esaten didaten bezala: Sin estudios no hay basket.

## Zer iritzi dute zure lagunek?

Batzuk kirol tontoa dela uste dute, baina nik uste dut onena norberak egiten duena dela.

## Zer behar du kirolari on batek?

Lau ezaugarri: buru orekatua, oso langilea, trebea eta ikasle ona izatea. Eta ona izateaz aparte, proiektzioa edukitzea.

## Nola sentitu zinen Euskal Selekzioarako aurrena eta gero Espainakora deitu zizutenean?

Oso arraroa izan zen. Ez nuen egin oso txapelketa ona Euskal Selekzioarekin, baina beno, agian espero nuen Euskal Aurre-Selekzioan jokatzeko, baina ez zen horrela izan. Aste Santuan Espainiako Selekzioarekin joan nintzen Serbiara eta han bi punturekin estreinatu nintzen.

## Nor izan zen zure lehenengo entrenatzailea?

Saskibaloian hasi nintzenetik 30 bat izan ditut. Eta orain nire entrenatzailea Aitor Uriz da.

## Zenbat neurtzen duzu?

2,09 metro.

## Zer erabiltzen duzu Facebook ala Tuenti?

Tuenti-a hemengo lagunekin, Facebook-a Kataluniakoekin eta Estatu Batuetakoekin Twitter-a.



Nahiz gogorra den basamortuan  
egarri denaren presa  
okerrago da ura eduki  
eta egarririk eza.  
Elgerak eman nahiko lieke  
gure mingainei babesa  
euskaraz bizi nahi duen oro  
uholdeak irents beza.

Elorri bertso-eskola

# ELGERA ALDIZKARIA

Eskuetan daukazue ELGERA aldizkariaren lehenengo zenbakia.

ELGERA bai eta zergatik?

Elgera, Kadaguaren ibaiadarra da, Pagasarriko hegaletan Iturrigorri auzoaren atzekaldean jaiotzen den erreka. Bilbo osoa zeharkatzen duen ibaia da, XX. mende hasieran lurperatu egin zuten eta horregatik ikusezina da, hala ere haserraldietan, uholdetan, Iturrigorri, Errekaldeberri eta Larras-kitu auzoak urez betetzen ditu.

Eta zer ikusia du eskuartean daukagunarekin?

Esan genezake Bilboko euskarak ere antzeko ibilbidea izan duela tamalez, baina, alboratua izan dena ikusgarri eta erabilgarri izatea nahi dugu.

Aldizkari honekin, euskaldunak Bilboko auzo guztietan bagarelako gure algara haur eta gazteei zabaldu nahi diegu, Pagasarritik hasi eta ibaiadarraren bi aldeetara auzo zahar eta berrietaraino. Zubi-lan honetan: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxeak baita B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programak ere parte hartzen dugu. Proiektu honekin, ikastetxeen arteko harremanak sortzea eta elkarrenberri izatea da lortu nahi duguna, euskara gelako esparrutik kaleratuz.

Gure asmoa ere bada Bilboko erakundeek eskaintzen dituzten jardueren berri zabaltzea, normaltasunez.

**ulibbari programa**

Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza





**EMAN**  
2013ko martxoaren 14tik 24ra  
**EUSKARA**  
Andoaindik Baionara  
**ELKARRI**